BOLETÍN OFICIAL DEL PAÍS VASCO

22. zk., 2026ko otsailaren 3a, asteartea

N.º 22, martes 3 de febrero de 2026

Hemen ikusgai dauden gainerako formatuen edukia PDF dokumentu elektroniko ofizial eta jatorrizkoa eraldatuz lortu da

(#)

El contenido de los otros formatos que aquí se muestran, se ha obtenido mediante una transformación del documento electrónico PDF oficial y auténtico

(#)

# XEDAPEN OROKORRAK

## EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

### 488

*EBAZPENA, 2025eko abenduaren 23koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko idazkari nagusiarena, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko doktoregoko ofizialen irakaskuntzak kudeatzeko erregelamendua argitaratzeko dena.*

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak, 2025eko abenduaren 11n egindako bilkuran, Euskal Herriko Unibertsitateko doktoregoko ofizialen irakaskuntzen kudeaketa-erregelamenduaren zenbait artikulu aldatzea onartu zuen (erregelamendu hori 2024ko ekainaren 7ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen), ikasketa horiek gainditzeak dakarren titulu ofizialean «Euskarazko doktoretza» aipamena sartzeko. Halaber, bilkura horretan, Gobernu Kontseiluak erabaki zuen testu bakar bat onartzea, bertan onartutako aldaketak indarreko testuari gehitzeko, araugintza-teknikaren arrazoiengatik. Testu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, azken xedapenetako hirugarrenaren arabera.

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuetako 187.1 d) artikuluak idazkari nagusiaren esku uzten du UPV/EHUren erabaki guztien publizitatea bermatzea. Bestalde, Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legeak 10. artikuluan ezartzen duenez, unibertsitate publikoaren estatutuak, antolamendu- eta funtzionamendu-arauak, horien aldaketak eta gobernu-organoek ematen dituzten aplikazio orokorreko xedapenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, eta ez dira indarrean jarriko harik eta testuak osorik argitaratu arte.

Horregatik guztiagatik,

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2025eko abenduaren 11n egindako bilkuran onartutako Euskal Herriko Unibertsitateko doktoregoko ofizialen irakaskuntzak kudeatzeko araudia bidaltzea, eranskinean jasotako moduan, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin.

Bigarrena.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa baino ezin izango da aurkeztu ebazpena eman zuen organo beraren aurrean, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke jurisdikzio-ordena horretako epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, eta ezin izango dira biak aldi berean aurkeztu.

Leioa, 2025eko abenduaren 23a.

Idazkari nagusia,
LEIRE GARMENDIA ARRIETA.

# DISPOSICIONES GENERALES

## UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

### 488

*RESOLUCIÓN de 23 de diciembre de 2025, de la secretaria general de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, de publicación del Reglamento de Gestión de las enseñanzas de oficiales de Doctorado de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.*

En sesión celebrada el 11 de diciembre de 2025, el Consejo de Gobierno de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea aprobó modificar determinados artículos del Reglamento de Gestión de las enseñanzas de oficiales de Doctorado de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco de 7 de junio de 2024, al objeto de incorporar en el título oficial al que da lugar la superación de estas enseñanzas la mención «Doctorado en euskera». Asimismo, en dicha sesión el Consejo de Gobierno acordó aprobar un texto único que incorporase, por razones de técnica normativa, las modificaciones aprobadas en la misma al texto en vigor, cuya entrada en vigor se producirá al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de acuerdo con su disposición final tercera.

El artículo 187.1 d) de los Estatutos de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea encomienda al secretario general garantizar la publicidad de todos los acuerdos de la UPV/EHU, mientras que la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, establece en su artículo 10 que los estatutos y las normas de organización y funcionamiento de la universidad pública, así como sus modificaciones y las disposiciones de general aplicación que dicten los órganos de gobierno de la misma, serán publicados en el Boletín Oficial del País Vasco, y no entrarán en vigor hasta la íntegra publicación de sus textos.

Por todo ello,

DISPONGO:

Primero.– Remitir para su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco el Reglamento de Gestión de las enseñanzas de oficiales de Doctorado de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, aprobado por el Consejo de Gobierno de la UPV/EHU en sesión de 11 de diciembre de 2025, en los términos recogidos en el anexo.

Segundo.– La presente Resolución pone fin a la vía administrativa y contra la misma solo se podrá interponer recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes, ante el mismo órgano que la dictó, o recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de dicho orden jurisdiccional en el plazo de dos meses, en ambos casos, a contar desde el día siguiente al de su publicación, sin que se puedan interponer ambos recursos de forma simultánea.

En Leioa, a 23 de diciembre de 2025.

La secretaria general,
LEIRE GARMENDIA ARRIETA.

# ERANSKINA

# UPV/EHUKO DOKTOREGO IKASKETA OFIZIALEN GESTIORAKO ARAUTEGIA

## I. KAPITULUA

## XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Helburua.

Arautegi honen helburua da UPV/EHUko doktorego-ikasketen kudeaketa antolatzea, eta Doktoregoko ikasketa ofizialak arautzen dituen urtarrilaren 28ko 99/2011 Errege Dekretuari jarraituz ezartzen da.

2. artikulua.– Doktorego-ikasketak.

1.– Doktoregoa unibertsitateko ikasketa ofizialen hirugarren zikloa da. Ikasketa hauen xedea da kalitateko ikerketarako gaitasunak eta trebetasunak eskuratzea. Ikasketok amaitzeko, ikerketa baten emaitza originalak biltzen dituen doktorego-tesi bat egin eta defendatu beharko da.

Goi mailako hezkuntzaren hirugarren ziklo hau gaindituta, doktore-titulua eskuratzen da. Titulu hori ofiziala da eta estatu osoan dauka balioa.

2.– Doktorego-ikasketak antolatzen dira eremu zientifiko, teknologiko, humanistiko, sozial eta artistiko desberdinetako programetan, eta diziplinarteko ikuspegiaz, UPV/EHUko Estatutuei, haiek garatzen dituzten arautegiei eta aplikatu beharreko oinarrizko legeriari men eginez.

3.– Normalean doktorego-ikasketak aurrez aurrekoak izaten dira, titulu bakoitzaren memoria egiaztatuan zehazten den bezala. Jardueraren bat aurrez aurrekoa izango ez bada, halaxe adierazi beharko da esplizituki ikasle bakoitzaren ikerketa- eta prestakuntza-plan pertsonalean.

3. artikulua.– Datu pertsonalen tratamenduaren araubide juridikoa.

Arautegi hau aplikatzearen ondoriozko datu pertsonalen tratamenduak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) arautegian eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera arautuko dira, UPV/EHUren tratamendu-jardueren erregistroari jarraituz.

## II. KAPITULUA

## SARBIDEA, ONARPENA ETA MATRIKULA

4. artikulua.– Tramiteen egutegia.

UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak ikasturte bakoitzerako ezarriko du, Doktorego Eskolaren proposamenez, doktorego-programetako sarbide, onarpen eta matrikularako tramiteen egutegia. Egutegia UPV/EHUko web-orrian argitaratuko da.

5. artikulua.– Doktoregoan sartzeko baldintzak.

1.– Oro har, doktorego-programa ofizial batera sartzeko, graduko titulua edo baliokidea eta unibertsitate-masterreko titulua edo baliokidea izan behar da, eta bi titulazio horien artean gutxienez 300 ECTS kreditu eduki behar dira gaindituta.

2.– Programan sar daitezke, era berean, atal hauetakoren batean zehazten diren baldintzak betetzen dituztenak:

a) Espainiako unibertsitate-titulu ofizialak edo Espainiako titulu baliokideak izatea, titulazio horien artean gutxienez 300 ECTS kreditu gaindituta izatea,

# ANEXO

# REGLAMENTO DE GESTIÓN DE LAS ENSEÑANZAS OFICIALES DE DOCTORADO

## CAPÍTULO I

## DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.– Objeto.

El presente reglamento tiene por objeto la organización de la gestión de los estudios de doctorado de la UPV/EHU, y se dicta de conformidad con lo establecido en el Real Decreto 99/2011, de 28 de enero, por el que se regulan las enseñanzas oficiales de doctorado.

Artículo 2.– Los estudios de doctorado.

1.– Los estudios de doctorado conforman el tercer ciclo de las enseñanzas universitarias oficiales. Su finalidad es la adquisición de las competencias y las habilidades concernientes a la investigación de calidad y su desarrollo. Dichos estudios finalizarán con la elaboración y defensa de una tesis doctoral que incorpore resultados originales de investigación.

La superación de este tercer ciclo de la educación superior da derecho a obtener el título de Doctor o Doctora, que tendrá carácter oficial y validez en todo el territorio nacional.

2.– Los estudios de doctorado se organizan en programas de los diversos ámbitos científicos, tecnológicos, humanísticos, sociales y artísticos, así como, desde un enfoque interdisciplinar del conocimiento, en la forma que determinen los Estatutos de la UPV/EHU y su normativa de desarrollo, así como la normativa básica de aplicación.

3.– Los estudios de doctorado se organizan con carácter general de forma presencial, atendiendo a lo dispuesto en la memoria verificada, y la realización de cualquier actividad con carácter no presencial deberá recogerse expresamente en el Plan de investigación y plan de formación personal.

Artículo 3.– Régimen jurídico del tratamiento de datos personales.

Los tratamientos de datos de carácter personal que deriven de la aplicación de este reglamento se regirán por lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de datos personales y garantía de los derechos digitales, de conformidad con el registro de actividades de tratamiento de la UPV/EHU.

## CAPÍTULO II

## ACCESO, ADMISIÓN Y MATRÍCULA

Artículo 4.– Calendario de trámites.

La Comisión de Posgrado de la UPV/EHU establecerá para cada curso académico, a propuesta de la Escuela de Doctorado, el calendario de trámites para el acceso, la admisión y la matrícula en los programas de doctorado. Dicho calendario se publicará en la página web de la UPV/EHU.

Artículo 5.– Requisitos de acceso al Doctorado.

1.– Con carácter general, para el acceso a un programa de doctorado será necesario estar en posesión de los títulos oficiales de Grado, o equivalente, y de Máster universitario, o equivalente, siempre que se hayan superado, al menos, 300 créditos ECTS en el conjunto de estas dos enseñanzas.

2.– Asimismo, podrán acceder quienes se encuentren en alguno de los siguientes supuestos:

a) Estar en posesión de títulos universitarios oficiales españoles o títulos españoles equivalentes, siempre que se hayan superado, al menos, 300

eta, horretaz gain, Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruko 3. maila egiaztatzea.

créditos ECTS en el conjunto de estas enseñanzas, y acreditar un nivel 3 del Marco Español de Cualificaciones para la Educación Superior.

b) Europako Unibertsitate Eremuko (EUE) atzerriko hezkuntza-sistemetako titulu bat izatea –homologatuta izan zein ez–, Kualifikazioen Europako Esparruko 7. mailakoa, baldin eta titulu horrek jatorrizko herrialdean doktoregorako sarbidea ematen badu. Bide horretatik sartzeak ez dakar titulua homologatzea: interesdunari doktoregoan sartzeko baino ez zaio onartuko, hau da, onarpenak ez du bestelako ondoriorik izango.

b) Estar en posesión de un título obtenido conforme a sistemas educativos extranjeros pertenecientes al Espacio Europeo de Educación Superior (EEES), sin necesidad de su homologación, que acredite un nivel 7 del Marco Europeo de Cualificaciones, siempre que dicho título faculte para el acceso a estudios de doctorado en el país de expedición del mismo. Esta admisión no implicará, en ningún caso, la homologación del título previo del que esté en posesión la persona interesada ni su reconocimiento a otros efectos que el del acceso a enseñanzas de doctorado.

c) EUEtik kanpoko atzerriko hezkuntza-sistemetako titulu bat izatea –homologatuta izan zein ez–, baldin eta aurretik frogatzen bada, Graduondoko Batzordeak ezarritako prozeduraren bitartez, titulu horrek Espainiako unibertsitate-master ofizial baten prestakuntzaren parekoa egiaztatzen duela, eta jatorrizko herrialdean doktoregorako sarbidea ematen duela. Bide horretatik sartzeak ez dakar titulua homologatzea: interesdunari doktoregoan sartzeko baino ez zaio onartuko, hau da, onarpenak ez du bestelako ondoriorik izango.

c) Estar en posesión de un título obtenido conforme a sistemas educativos extranjeros ajenos al EEES, sin necesidad de su homologación, previa comprobación, de acuerdo con el procedimiento establecido por la Comisión de Posgrado, de que este acredita un nivel de formación equivalente a la del título oficial español de Máster universitario y que faculta en el país de expedición del título para el acceso a estudios de doctorado. Esta admisión no implicará, en ningún caso, la homologación del título previo del que esté en posesión la persona interesada ni su reconocimiento a otros efectos que el del acceso a enseñanzas de doctorado.

d) Beste doktore-titulu bat izatea.

d) Estar en posesión de otro título de Doctora o Doctor.

e) Unibertsitateko titulua izanik, Osasun Zientzietako espezialitate bat egiteko plaza bat lortuta izatea –dagokion proba gainditurik–, eta programa horretan gutxienez bi urte egin izana ebaluazio positiboaz.

e) Personas tituladas universitarias que, previa obtención de plaza en formación en la correspondiente prueba de acceso a plazas de formación sanitaria especializada, hayan superado con evaluación positiva al menos dos años de formación de un programa para la obtención del título oficial de alguna de las especialidades en Ciencias de la Salud.

6. artikulua.– Onarpenerako baldintzak eta irizpideak.

Artículo 6.– Requisitos y criterios de admisión.

1.– Doktorego-programako batzorde akademikoak ikasleak hautatu eta onartzeko baldintza eta irizpide gehiago ezar ditzake, 5. artikuluan zehaztutakoez gainera. Zehazki, eskatu ahal izango da doktorego-programako ikertzaile baten konpromisoa, tesiaren zuzendaria izateko ikaslea programan onartuz gero.

1.– La Comisión Académica del programa de doctorado puede establecer requisitos y criterios adicionales a los establecidos en el artículo 5 para la selección y admisión del estudiantado. En particular, se podrá establecer el aval de una investigadora o investigador del programa de doctorado como posible directora o director de la tesis doctoral.

2.– Prestakuntza osagarri espezifikoak.

2.– Complementos de formación específicos.

Gerta liteke ikasleei prestakuntza osagarri espezifiko jakin batzuk egitea eskatzea doktorego programan onartuak izateko. Osagarriok ikasturte bakar batean egin beharko dira gehienez eta tesiaren hastapenetan, ahal dela matrikulako lehen ikasturtean, eta, edozelan ere, bigarrena amaitu aurretik Prezio publikoei eta ikasteko beka eta laguntzei dagokienez, doktorego mailako prestakuntzatzat joko dira.

La admisión a los programas de doctorado puede incluir la exigencia de complementos de formación específicos, que deberán superarse en un plazo máximo de un curso académico, en el periodo inicial de desarrollo de la tesis, preferiblemente en el primer curso de matrícula y, en cualquier caso, antes de finalizar el segundo. Tendrán, a efectos de precios públicos y de concesión de becas y ayudas al estudio, la consideración de formación de nivel de doctorado.

3.– Onarpenerako baldintzak eta irizpideak eta prestakuntza osagarrien diseinua doktorego-programa bakoitzaren memoria egiaztatuan egongo dira zehaztuta, indarreko arautegiei jarraituz.

3.– Los requisitos y criterios de admisión, así como el diseño de los complementos de formación, vendrán establecidos en la memoria verificada del programa de doctorado, según la normativa vigente.

4.– Plazen erreserba.

4.– Reserva de plazas.

Plazen % 5 gutxienez gordeko dira % 33ko desgaitasun-maila edo handiagoa duten ikasleentzat eta desgaitasun-egoera pertsonalengatik hezkuntza-premia bereziak dituzten eta aurreko ikasketak normaltasun osoaz egiteko baliabide eta laguntzak behar izan dituzten ikasleentzat. Plaza horiek betetzen ez badira, doktorego-programako eskaintza orokorrera pasatuko dira.

Se reservará un 5 por 100 de las plazas ofertadas para estudiantes que tengan reconocido un grado de discapacidad igual o superior al 33 por 100, así como para estudiantes con necesidades educativas especiales permanentes asociadas a circunstancias personales de discapacidad que en sus estudios anteriores hayan precisado de recursos y apoyos para su plena normalización educativa. En el caso de no cubrirse estas plazas, formarán parte de la oferta general del programa de doctorado.

7. artikulua.– Ikasleak onartzeko prozedura.

Artículo 7.– Procedimiento de admisión.

1.– Eskariak.

1.– Solicitud.

Doktorego-programa batean sartzeko eskaria (izen-ematea) aurkeztu ahal izango dute sarbiderako baldintza orokorrak eta onarpenerako baldintza eta irizpideak betetzen dituztenek, edo matrikula egiteko unean betetzeko moduan daudenek.

Con carácter general, podrán solicitar la admisión (preinscripción) a un programa de doctorado en el plazo fijado quienes cumplan los requisitos de acceso, así como los requisitos y criterios de admisión establecidos, o quienes estén en disposición de cumplirlos en el momento de formalizar la matrícula.

EUEtik kanpoko atzerriko titulazioa daukatenak onartzea ala ez Graduondoko Batzordearen esku geratuko da. Baimena eskatu ahal izango zaio onarpena eskatzeko epea hasi baino lehenago, batzordeak berak ezarriko duen eta UPV/EHUren webgunean argitara emango den prozedurari jarraiki. Izena emateko unean ikasleak ez badu eskatu edo lortu oraindik baimena, modu baldintzatuan segitu ahal izango du onarpen prozesuan. Hala ere, ez badu lortzen baimena matrikula egiteko epearen barruan (Graduondoko Batzordeak ikasturte bakoitzerako onartzen duen egutegiaren arabera), onarpen-eskaria bertan behera geratuko da.

En el caso de personas con titulación extranjera de países ajenos al EEES, su admisión quedará supeditada a su autorización por la Comisión de Posgrado. La solicitud de autorización podrá presentarse con carácter previo al periodo para solicitar la admisión, siguiendo el procedimiento establecido al efecto por la Comisión de Posgrado y hecho público en la página web de la UPV/EHU. En el supuesto de que, en el momento de hacer la solicitud de admisión (preinscripción), aún no se hubiera solicitado u obtenido la referida autorización, se podrá continuar en el proceso de admisión de manera condicionada, quedando anulada la admisión si no se obtuviera la autorización en el plazo que se establezca para formalizar la matrícula, de conformidad con el calendario que apruebe la Comisión de Posgrado para cada curso académico.

2.– Onarpena.

2.– Admisión.

Onarpena eskatzeko epea amaituta, doktorego-programa bakoitzeko batzorde akademikoak eskariak aztertuko ditu onarpenerako baldintzak eta irizpideak aintzat hartuta, eta bere erabaki-proposamena jakinaraziko die interesdunei, ezarritako egutegiaren arabera. Era berean, onartuen artetik inork prestakuntza osagarririk egin behar badu, batzorde akademikoak esango dio zeintzuk egin behar dituen.

Finalizado el plazo de solicitud de admisión correspondiente, la Comisión Académica de cada programa de doctorado valorará las solicitudes conforme a los requisitos y criterios de admisión establecidos y comunicará la propuesta de resolución a las personas interesadas, según el calendario aprobado. Asimismo, la Comisión Académica comunicará a las personas admitidas, los complementos de formación que, en su caso, deban cursar.

Onarpenari buruzko erabaki-proposamenaren kontra, interesdunek alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte hiru egun balioduneko epean. Doktorego-programako batzorde akademikoak alegazioak ebatziko ditu eta behin betiko erabakia jakinaraziko die interesdunei hamar egun balioduneko epean.

Frente a la propuesta de resolución de admisión las personas interesadas podrán presentar las alegaciones que consideren pertinentes, en el plazo de 3 días hábiles. La Comisión Académica del programa de doctorado resolverá las alegaciones presentadas y comunicará la resolución definitiva a las personas interesadas en el plazo de 10 días hábiles.

Alegazioak aurkeztu ezean, epe horiek amaituta, erabaki-proposamenean onartutako eskariak behin betiko onetsita geratuko dira ondorio guztietarako.

En el caso de no haberse presentado alegaciones, una vez transcurridos dichos plazos, las solicitudes aceptadas en la propuesta de resolución se considerarán admitidas con carácter definitivo a todos los efectos.

3.– Erreklamazioa jartzeko aukera doktorego-programan onartua izateko eskariaren ebazpenaren kontra.

3.– Reclamación ante la resolución de la solicitud de admisión en el programa de doctorado.

Onartua izateko eskariaren ebazpenaren kontra, interesdunek erreklamazioa jarri ahal izango diote Doktorego Eskolari hiru egun balioduneko epean. Doktorego Eskolak hamar egun balioduneko epean ebatziko ditu erreklamazioak eta interesdunei eta programako batzorde akademikoei jakinaraziko die erabakia. Erabaki horren kontra gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Errektoreari, edo hark bere ordez izendatzen duen organoari, hilabeteko epean, jakinarazpena egiten denetik hasita.

Frente a la resolución de la solicitud de admisión las personas interesadas podrán presentar reclamación ante la Escuela de Doctorado en el plazo de 3 días hábiles. La Escuela de Doctorado resolverá las reclamaciones en el plazo máximo de 10 días hábiles y la comunicará a las personas interesadas y a la Comisión académica del Programa. Contra esta resolución se podrá interponer recurso de alzada ante la rectora o rector, u órgano en quien delegue, en el plazo de un mes, a contar desde la notificación de la desestimación.

4.– Publizitatea.

4.– Publicidad.

Onarpen-prozedurari buruzko informazioa gardena eta irisgarria izango da. Ikasleek orientazio-zerbitzu egokiak izango dituzte beren esku, eta desgaitasunen bat edo premia bereziak dituzten ikasleak aintzat hartuko dira informazioa ematean eta onarpen-prozeduretan. Hortaz, ikasle horiei laguntza- eta aholku-zerbitzu egokiak eskainiko zaizkie, zerbitzuok ebalua dezaten ea moldaketarik egin behar den curriculumean edo ibilbide edo ikasketa alternatiborik proposatu behar den.

Se garantizará una información transparente y accesible sobre los procedimientos de admisión. Asimismo, se garantizará que el estudiantado disponga de sistemas de orientación adecuados y que la información y los procedimientos de admisión tengan en cuenta al estudiantado con discapacidad o con necesidades específicas, poniendo a su disposición servicios de apoyo y asesoramiento adecuados, que evaluarán la necesidad de posibles adaptaciones curriculares, itinerarios o estudios alternativos.

5.– Salbuespenezko onarpen-prozedura.

5.– Procedimiento excepcional de admisión.

Salbuespenez, eta arrazoi justifikatuak direla medio (doktorego aurreko kontratua, zuzendarikidetza edo antzekoak) epe orokorretik kanpo egin ahal izango da eskaria doktorego-programa batean onartua izateko. Nolanahi ere, sarbide eta onarpenerako baldintzak bete beharko dira.

Excepcionalmente, y por causa justificada (contrato predoctoral, cotutela o circunstancias análogas), se podrá solicitar la admisión en un programa de doctorado fuera de los plazos generales establecidos, siempre que se cumpla con los requisitos de acceso y admisión.

Eskariok Doktorego Eskolan aurkeztuko dira, eta berak arrazoituta ebatziko ditu, doktorego programako batzorde akademikoaren txostena ikusita. Eskariok onartzeko ezinbestekoa izango da doktorego-programako batzorde akademikoaren aldeko txostena, eta doktorego-programan plazak geratzea. Erabaki horren kontra gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Errektoreari, edo hark bere ordez izendatzen duen organoari, hilabeteko epean, jakinarazpena egiten denetik hasita. Onarpen horien berri eman beharko zaio graduondoko ikasketen arloko eskumenak dituen errektoreordetzari.

Estas solicitudes se presentarán ante la Escuela de Doctorado, que las resolverá de forma motivada, previo informe de la Comisión Académica del programa de doctorado. La resolución estimatoria requerirá el informe favorable previo de la Comisión Académica del programa de doctorado y solo podrá producirse en caso de que existan plazas disponibles en el programa de doctorado. En caso de no quedar conforme con la resolución, se podrá presentar recurso de alzada ante la rectora o rector, u órgano en quien delegue, en el plazo de un mes a contar desde la notificación. De estas admisiones se informará al Vicerrectorado competente en materia de Posgrado.

Bide horretatik sartzen direnek ikasturte horren matrikula osoa ordaindu beharko dute, berdin da noiz hasten diren programan.

Quienes opten por esta vía de la admisión deberán abonar la cuantía completa de la matrícula correspondiente al curso académico en el que la formalicen, independientemente de la fecha.

8. artikulua.– Matrikula egiteko prozedura.

Artículo 8.– Procedimiento de matrícula.

1.– Behin doktorego-programan onarturik, ikasleak matrikula egin beharko du, ezarritako prozedura eta egutegia betez, eta dagokion prezioa ordaindu beharko du. Prezioa Eusko Jaurlaritzak prezio publikoen aginduan ezarritakoa izango da, eta ikasturte osoarena. Matrikula egitean ikasleak zehaztu beharko du zein erregimenetan egingo dituen doktorego-ikasketak: arduraldi osoan ala partzialean. Arduraldi partzialean egiteko, ikasleak doktorego-programako batzorde akademikoaren baimena beharko du.

1.– Una vez admitida o admitido en el programa de doctorado, cada estudiante deberá formalizar la matrícula de doctorado, de acuerdo con el procedimiento y calendario establecidos, y abonar el precio correspondiente. El precio de la matrícula será el fijado por el Gobierno Vasco en su orden de precios públicos, y corresponde al curso completo. En el momento de la matrícula se establecerá el régimen de dedicación de los estudios de doctorado: a tiempo completo o a tiempo parcial. Para poder cursar los estudios a tiempo parcial se requiere la autorización de la Comisión Académica del programa de doctorado.

Programa bi erakunde edo gehiagoren artekoa denean, hitzarmenean zehaztuko da nola egin beharko den matrikula.

Cuando se trate de programas conjuntos, el convenio determinará la forma en que deberá llevarse a cabo dicha matrícula.

2.– Matrikulatzean ikaslea doktoregai bihurtuko da eta prestakuntza bidean dagoen ikertzailetzat hartuko da.

2.– La persona matriculada tendrá la condición de doctorando o doctoranda y se considerará investigador o investigadora en formación.

3.– Matrikula egiten ez badu ezarritako epean eta baldintzetan, interesdunak esleitu zaion plaza galduko du.

3.– Si no se formaliza la primera matrícula en los plazos y condiciones establecidos, la persona interesada perderá su plaza en los estudios adjudicados.

4.– Matrikula ikasturte bakoitzean berritu beharko da, harik eta tesia irakurri arte. Ikasturte osoan bajan dagoen doktoregaia baino ez da egongo salbuetsita matrikulatzetik.

4.– La matrícula habrá de renovarse cada curso académico, hasta la lectura de la tesis. Únicamente estará exenta de matricularse, la persona doctoranda que se encuentre de baja durante el curso completo.

5.– Matrikula baliogabetzea eta aldatzea Doktorego Eskolan.

5.– Anulación y modificación de matrícula, ante la Escuela de Doctorado.

Doktoregaiak ikasturteko edozein unetan baliogabetu ahal izango du matrikula. Matrikula osorik baliogabetu beharko da, eta ez da atzera jasoko ordaindutako dirua. Horrek, hala ere, ez du eragotziko artikulu honetako 7. puntua betetzea.

Bestalde, doktoregaiak eskatu ahal izango du matrikulan arduraldia aldatzeko, doktorego-programako batzorde akademikoak baimena emanez gero. Arduraldi partzialetik osora aldatuz gero, matrikularen prezioari dagokion aldea ordaindu beharko du. Arduraldi osotik partzialera aldatuz gero, dirurik bueltan jasotzeko, aldaketak eragina izatea nahi duen ikasturteko abenduaren 31 baino lehen eskatu beharko du aldaketa.

6.– Matrikula ez ordaintzea.

Matrikula egin ondoren doktoregaiak dagokiona ordaintzen ez badu horretarako epean, ordaintzeke daukan kopurua unibertsitatearen aldeko zorra bihurtuko da. Zor hori errektoreorde eskudunaren erabaki batean jasoko da, eta interesdunari jakinaraziko zaio.

UPV/EHUrekin zorrak dituztenek ezin izango dute beste matrikularik egin, ez zaie emango titulurik edo ziurtagiririk, ezta espediente akademikoari buruzko informazio-oharrik ere, eta ezin izango dute espedienterik lekualdatu. Era berean, ezin izango dituzte UPV/EHUren zerbitzuak erabili. Zorra kitatu bezain laster, matrikulari lotutako zerbitzuak eta unibertsitateak eskaintzen dituen gainerako guztiak erabili ahal izango dituzte.

Errektoreorde eskudunaren erabaki baten bidez ikasleak zorra duela adierazten ez den artean, ez da gelditutko ikasketak amaitzeko gehieneko epearen zenbaketa.

7.– Dirua itzultzea.

Nahiz eta ikasleek legezko epean eta eran eskatu matrikula baliogabetzea, ez zaie dirua itzuliko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bateginari jarraituz (1/2007 Legegintzako Dekretua, irailaren 11koa, 34.6 artikulua).

Hala ere, salbuespen hauetan itzuli egingo zaie:

Matrikula administrazioak bere kabuz baliogabetzen badu, baldintzaren bat betetzen ez delako, eta hori zuzentzea ezinezkoa bada.

Ikasleak indarrean dauden prezioak baino gehiago ordaindu badu, kalkulua oker egin delako edo oker kobratu zaiolako, betiere, horren errua ikaslearena izan ez bada.

Doktoregaiari ordaintzea ez badagokio, ikasteko beka edo laguntza bat eman zaiolako, hitzarmenez hala ezarri delako, edo salbuespena aitortu zaiolako edo dirulaguntzaren bat esleitu zaiolako, baldin eta eskaria legezko epean eta eran egin badu, ikasturte bakoitzerako prezio publikoen aginduan ezarritakoaren arabera.

Ikasleak matrikula baliogabetzeko eta dirua itzultzeko eskaria egiten badu matrikulaziorako epe ofiziala amaitu aurretik.

Matrikula baliogabetzea eskatzen badu ez diotelako eman doktoregoa egiteko eskatu duen laguntza edo kontratua.

Ikasturteko edozein unetan, ikasleak ezin badu ikasten jarraitu salbuespenezko, ustekabeko eta behar bezala justifikatutako egoera bat sortu delako, adibidez, gaixotasun fisiko edo psikiko luzea; ikaslea bera edo berarekin lehen mailako odolkidetasuna daukan senidea hiltzen bada; ikaslea bera lanean hasten bada eta lanaren ordutegia bateraezina bada ikasketekin; edo egoera horien pareko besteren bat sortzen bada ustekabean.

Dirua itzultzeko eskaria unibertsitateko erregistroan aurkeztu beharko da, graduondoko ikas-keten arloko eskumenak dituen errektoreordeari zuzendua, salbuespenezko egoera egiaztatzen duten agiriekin batera.

## III. KAPITULUA

## IKASKETEI EGIN BEHARREKO JARRAIPENA

9. artikulua.– Doktorego-ikasketen gainbegiratze eta jarraipen prozesua.

La persona doctoranda podrá anular la matrícula en cualquier momento del curso. Esta anulación afecta a la totalidad de la matrícula y no supone la devolución de los precios públicos abonados por la persona interesada, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 7 de este artículo.

Asimismo, podrá solicitar la modificación de la matrícula para cambiar el régimen de dedicación establecido, siempre que cuente con la autorización de la Comisión Académica del programa de doctorado. En el caso de modificación de tiempo parcial a tiempo completo, deberá abonarse la diferencia del precio de la matrícula. En el supuesto de cambio de tiempo completo a tiempo parcial, solo se devolverán los precios públicos abonados si se solicita hasta el 31 de diciembre del curso en el que se pretende la modificación.

6.– Impago de la matrícula.

Si después de realizada la matrícula el doctorando o doctoranda no abonase el importe de la misma en el plazo establecido al efecto, generará una deuda a favor de la universidad por la cantidad pendiente de pago, que será establecida mediante resolución del vicerrectorado competente y notificada a la persona interesada.

Quienes tengan deudas pendientes con la UPV/EHU no podrán realizar nuevas matrículas; asimismo, no se les expedirán títulos, ni certificaciones, ni traslados, ni notas informativas sobre su expediente académico. Tampoco podrán disfrutar de los servicios que ofrece la UPV/EHU. En el momento en el que hagan efectivo el pago de la deuda podrán disfrutar de los derechos derivados de su matrícula y del resto de servicios que ofrece la universidad.

Hasta la declaración de impago mediante resolución del vicerrectorado competente, no se interrumpirá el cómputo del plazo máximo para la finalización de los estudios.

7.– Devolución de precios.

De conformidad con lo establecido en el artículo 34.6 del Decreto Legislativo 1/2007, de 11 de septiembre, de aprobación del texto refundido de la Ley de Tasas y Precios Públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la solicitud de anulación de matrícula efectuada en los plazos y forma previstos legalmente en ningún caso supondrá la devolución de los precios públicos abonados.

En los siguientes casos se devolverán, excepcionalmente, los precios públicos abonados:

Cuando se anule de oficio la matrícula por falta de algún requisito no subsanable.

Cuando la cantidad abonada sea superior a los precios en vigor por causa de error de cálculo o cobro indebido, producido por causa no imputable al doctorando o doctoranda.

Cuando se hayan abonado cantidades para las personas doctorandas que están exentas por concesión de una beca o ayuda al estudio, por un convenio, o bien por ser beneficiario/a de una exención o subvención, siempre que la solicitud se haya efectuado y acreditado en tiempo y forma, de acuerdo con lo establecido en la Orden de Precios Públicos para cada curso académico.

Cuando se solicite la anulación de la matrícula y la devolución del importe correspondiente antes de que finalice el período oficial de matrícula.

Cuando se solicite la anulación de la matrícula por denegación de la ayuda o contrato solicitado para cursar los estudios de doctorado.

En cualquier momento del curso, si concurren circunstancias excepcionales, sobrevenidas y debidamente justificadas que le impidan continuar los estudios durante el resto del curso, como puede ser una enfermedad prolongada de carácter físico o psíquico, defunción del doctorando o doctoranda o de familiar de primer grado de consanguinidad, incorporación a un puesto de trabajo que suponga incompatibilidad horaria u otra causa sobrevenida de análoga consideración.

Deberá presentarse una solicitud de devolución en el registro de la universidad junto con los documentos que justifiquen la situación excepcional, dirigida al Vicerrectorado competente en materia de Posgrado.

## CAPÍTULO III

## SEGUIMIENTO DE LOS ESTUDIOS

Artículo 9.– Supervisión y seguimiento del Doctorado.

1.– Doktoregaiak urtero matrikulatuko dira unibertsitatean eta urtero bete beharko dituzte ikerketa- eta prestakuntza-plan pertsonala eta jardueren dokumentu pertsonalizatua.

1.– Las doctorandas y doctorandos se matricularán anualmente en la universidad y deberán cumplimentar cada curso académico el Plan de investigación y plan de formación personal y el Documento de actividades.

2.– Programa batean dauden doktoregaiek men egin beharko diote dagokien araubide juridikoari edo kontratu-araubideari, kasu bakoitzean aplikatu behar zaien legeria espezifikoaren arabera.

2.– Las personas doctorandas incorporadas a un programa de doctorado se someterán al régimen jurídico y en, su caso, contractual, que resulte de la legislación específica que les sea de aplicación.

3.– Ikasle bat behin doktorego-programan onartuz gero, batzorde akademikoak tutore bat eslei-tuko dio, eta 10.1 artikuluko baldintzak betetzen dituen zuzendari bat, gutxienez.

3.– Una vez admitida o admitido al programa de doctorado, a cada doctoranda o doctorando le será asignado por parte de la correspondiente Comisión Académica una tutora o tutor y, al menos, una directora o director que cumpla los requisitos indicados en el artículo 10.1.

4.– Doktoregaia atxikiko zaio doktorego-programako batzorde akademikoak esleituko dion sai-lari, zuzendarien, tutorearen eta programan parte hartzen duten sailen artetik. Sailak doktorego-programan parte hartzen ez badu, onespena eman beharko dio atxikipenari.

4.– El doctorando o doctoranda se adscribirá al departamento que determine la Comisión Académica del programa de doctorado, de entre los departamentos a los que pertenecen las personas directoras, la persona tutora, y los departamentos participantes del programa. Cuando el departamento no participe en el programa de doctorado, deberá dar su visto bueno a la adscripción.

10. artikulua.– Tesi-zuzendariak.

Artículo 10.– Dirección de la tesis.

1.– Zuzendaria izateko baldintzak.

1.– Requisitos para dirigir una tesis.

Tesi bat zuzentzeko beharrezkoa izango da doktorea izatea, ikerketa-esperientzia egiazta-tua edukitzea eta kasuan kasuko doktorego-programako kidea izatea. Doktorego-programako batzorde akademikoak programako irakasleen zerrenda eguneratuko du urtero, doktorego-proposamenak aurkezteko arautegiari jarraituz, eta, gutxienez, onarpena eskatzeko epea hasi baino hilabete lehenago.

Podrá dirigir una tesis quien sea doctor o doctora con experiencia investigadora acreditada y pertenezca al profesorado del programa de doctorado correspondiente. El profesorado perteneciente al programa de doctorado deberá ser revisado y actualizado anualmente por la Comisión Académica del programa de conformidad con lo establecido en la normativa reguladora de las propuestas de doctorado y, al menos, con un mes de antelación a la apertura del período de solicitud de admisión.

Arautegi honi dagokionerako, ikerketa-esperientzia egiaztatua izango da Ikerketa Ebaluatzeko Espainiako Batzordeak (CNEAI) aitortutako ikerketa tarte bat gutxienez edukitzea, unibertsitateko irakasleen ordainsariei buruzko abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuari jarraituz, edo, bide horretatik ezin badute egiaztatu, pareko ikerketa merezimenduak edukitzea, Graduondoko Batzordeak zehazten duenaren arabera.

A los efectos de este reglamento, se entiende por experiencia investigadora acreditada la posesión de, al menos, un periodo de actividad investigadora reconocida por la Comisión Nacional Evaluadora de la Actividad Investigadora (CNEAI) en aplicación del Real Decreto 1086/1989, de 28 de agosto, sobre retribuciones del profesorado universitario, o, en el caso de que no se esté en situación de poder acreditarlo por esta vía, tener méritos de investigación equiparables, según lo que se establezca por la Comisión de Posgrado.

2.– Zuzendariaren eginkizunak.

2.– Funciones de la persona directora.

Tesi-zuzendariaren ardura da doktoregaiaren ikerketa-zereginak gidatzea, haren prestakuntza-jarduerak koherenteak eta egokiak izatea, tesiaren gaiak bere arloan inpaktua eta berritasuna izatea, doktoregaiaren plangintza gidatzea eta bermatzea plangintza hori ondo egokitzen dela doktoregaiak egiten dituen gainerako proiektu eta jarduerekin.

La persona directora de la tesis es la máxima responsable de la conducción del conjunto de las tareas de investigación del doctorando o doctoranda, de la coherencia e idoneidad de las actividades de formación, del impacto y novedad en su campo de la temática de la tesis doctoral, y de la guía en la planificación y su adecuación, en su caso, a la de otros proyectos y actividades donde se inscriba la doctoranda o doctorando.

Tutorearen eginkizunak konpromiso-dokumentuan jasoko dira.

Las funciones de la persona directora se reflejan en el Documento de Compromiso.

3.– Zuzendarikidetza.

3.– Codirección.

Tesiak zuzendarikide bat edo gehiago izan ahalko ditu, gaiaren diziplinartekotasunak edo arrazoi akademikoek hala eskatzen badute edo doktorego-programa lankidetzan egiten bada estatuko edo nazioarteko beste unibertsitateren batekin edo batzuekin. Zuzendarikideek artikulu honetan adierazitako baldintza berak bete beharko dituzte ikerketa-esperientziari dagokionez. Zuzendarikideek ez dute zertan doktorego-programakoak izan.

La tesis podrá ser codirigida por otras doctoras o doctores, que deberán reunir los mismos requisitos en cuanto a experiencia investigadora que los señalados en el presente artículo, cuando concurran razones de índole académico o de interdisciplinariedad temática, o cuando se trate de programas desarrollados en colaboración nacional o internacional. Estas personas podrán no pertenecer al programa de doctorado.

Batzorde akademikoak baimena eman beharko du tesia zuzendarikidetzan egiteko. Baimen hori atzera bota daiteke aurrerago, baldin eta batzorde akademikoaren iritziz zuzendarikidetzak tesiaren garapenari onik egiten ez badio.

Para la codirección de la tesis será necesaria la autorización previa de la Comisión Académica. Dicha autorización podrá ser revocada con posterioridad si, a juicio de la Comisión Académica, la codirección no beneficia al desarrollo de la tesis.

Batzorde akademikoak baimena eman ahal izango du ikerketa-esperientzia egiaztatuaren baldintza (10.1 artikuluan zehazten dena) betetzen ez duten doktoreak zuzendarikide izateko.

La Comisión Académica podrá autorizar la codirección de la tesis por parte de doctores o doctoras que no cumplan con la experiencia investigadora acreditada en los términos establecidos en el artículo 10.1.

Zuzendariak ezin izango dira hiru baino gehiago izan.

En ningún caso el número de directoras o directores será superior a tres.

4.– Irakasle erretiratu, emeritu eta lankide ohorezkoek tesiak zuzendu ahal izango dituzte baldin eta doktorego-programako beste zuzendarikide bat badute. Doktoregaiak tesia gordailuan uzten badu zuzendariak erretiroa hartu edo emeritu edo ohorezko lankide izendapena jaso eta hurrengo sei hilabeteen barruan, ez da beharrezkoa izango beste zuzendarikide bat izatea.

4.– El profesorado jubilado, emérito y colaborador honorífico podrá iniciar y continuar la dirección de una tesis siempre que esta sea codirigida por algún miembro del programa de doctorado. No será necesaria la codirección en el caso de que el depósito de la tesis se realice dentro de los seis meses posteriores a la jubilación o nombramiento correspondiente.

5.– Batzorde akademikoak, doktoregaiaren eta zuzendari(ar)en iritzia entzunda, tesi-zuzendaria aldatu ahal izango du edozein momentutan, horretarako arrazoi justifikaturik badago. Aldaketa hori doktoregaiak, zuzendariak, tutoreak edo batzorde akademikoak eskatu ahal izango dute.

5.– La Comisión Académica, oída la doctoranda o doctorando y la persona o personas que dirijan la tesis, podrá modificar el nombramiento de la directora o director de tesis en cualquier momento del periodo de realización del Doctorado, siempre que concurran razones justificadas. Dicha modificación la podrá instar la persona doctoranda, la directora, la tutora o la propia comisión académica.

11. artikulua.– Doktoregaiaren tutoretza.

Artículo 11.– Tutorización de la doctoranda y del doctorando.

1.– Tutorea izateko baldintzak.

Doktoregai baten tutorea izateko nahikoa da UPV/EHUko doktorea izatea eta kasuan kasuko doktorego-programako kidea. Tutorea tesi-zuzendarietako bat izan daiteke edo ez.

2.– Tutorearen eginkizunak.

Tutorea doktoregaiaren eta batzorde akademikoaren arteko bitartekaria izango da. Bestalde, ziurtatuko du doktoregaiaren prestakuntza eta ikerketa-lana bat datozela doktorego-programaren eta Doktorego Eskolaren printzipioekin.

Tutorearen eginkizunak konpromiso-dokumentuan jasoko dira.

3.– Batzorde akademikoak, doktoregaiaren eta tutorearen iritzia entzunda, tutorea aldatu ahal izango du edozein momentutan, horretarako arrazoi justifikaturik badago. Aldaketa hori doktoregaiak, zuzendariak, tutoreak edo batzorde akademikoak eskatu ahal izango dute.

12. artikulua.– Izendapenen tramitazioa.

Zuzendari(ar)en eta tutorearen izendapenak eta haien aldaketak Doktorego Eskolan tramitatuko dira, doktorego-programako batzorde akademikoaren eskariz.

## IV. KAPITULUA

## IKASKETEN GARAPENA

13. artikulua.– Doktoregoaren iraupena.

1.– Doktoregoko ikasketek lau urte iraungo dute, arduraldi osoan, doktoregaia programan matrikulatzen den egunetik tesia gordailuan uzteko prozesua hasten den egunera arte.

Dena dela, doktorego programako batzorde akademikoak aurrez baimentzen badu, arduraldi partzialean ere egin ahal izango dira doktoregoko ikasketak. Kasu horretan, ikasketek zazpi urte iraungo dute, gehienez, doktoregaia programan matrikulatzen den egunetik tesia gordailuan uzteko prozesua hasten den egunera arte.

Tesia zuzendarikidetzan edo doktorego aurreko prestakuntza kontratu batez egiten duten doktoregaiek arduraldi osoan egin beharko dute doktoregoa, non eta kasuan kasuko deialdian, kontratuan edo hitzarmenean ez den esplizituki esaten arduraldi partzialean egin dezaketela.

2.– Doktorego-programako Batzorde Akademikoak Doktorego Eskolari jakinarazi beharko dio zein arduralditan arituko diren onartutako doktoregaiak, dagozkien tramiteak egin ditzan.

3.– Doktoregaiak % 33ko desgaitasuna edo handiagoa badauka, doktoregoko ikasketek gehienez sei urte iraungo dute arduraldi osoan, eta bederatzi urte arduraldi partzialean.

4.– Luzapena.

1., 2. eta 3. ataletan aipatutako epeak amaitu aurretik tesia gordailuan uzteko prozedura hasi ez bada, doktoregaiak urtebeteko luzapena eskatu ahal izango dio doktorego-programakoBbatzorde Akademikoari, baita batzordeak baimendu ere, programan zehaztutako baldintzetan.

5.– Doktoregaiak behin-behineko bajak eskatu ahal izango ditu programan, gehienez ere bi urtez, etenaldi guztiak kontuan hartuta. Doktorego-programako Batzorde Akademikoari aurkeztu beharko dio eskari justifikatua, eta hark erantzun arrazoitua eman beharko dio.

Doktorego-programako Batzorde Akademikoak Doktorego Eskolari jakinaraziko dizkio luzapenen eta behin-behineko bajen inguruan hartzen dituen erabakiak, eskolak tramita ditzan.

Etenaldiok ez daukate zerikusirik 6. atalean aipatzen diren egoerekin.

6.– Aldi baterako ezintasuna, umeen jaiotza, adopzioa, adopziorako zaintza, harrera, haurdunaldiko arriskua, edoskitzaroko arriskua, genero-

1.– Requisitos para tutorizar una tesis.

Podrá tutorizar una tesis cualquier doctor o doctora de la UPV/EHU que pertenezca al programa de doctorado. Podrá ser coincidente o no con alguna de las personas que dirijan la tesis doctoral.

2.– Funciones de la persona tutora.

La tutora o el tutor deberá velar por la interacción de la doctoranda o doctorando con la Comisión Académica. Es responsable, asimismo, de la adecuación de la formación y de la actividad investigadora a los principios de los programas y, en su caso, de la Escuela de Doctorado.

Las funciones de la persona tutora se reflejan en el Documento de Compromiso.

3.– La Comisión académica, oída u oído la doctoranda o el doctorando, y la persona tutora, podrá modificar el nombramiento de la tutora o tutor en cualquier momento del periodo de realización del doctorado, siempre que concurran razones justificadas. El cambio lo podrá instar la persona doctoranda, la directora, la tutora o la propia Comisión Académica.

Artículo 12.– Tramitación de nombramientos.

1.– Doktorego-tesiaren defentsa gaindituta, doktoregaiak doktore titulua eskatu ahal izango die programan parte hartu duten unibertsitateei, horietan indarrean dagoen arautegiari eta hitzarmenean adierazitako xedapenei jarraiki.

1.– Superada la defensa de la tesis doctoral, el doctorando o doctoranda podrá solicitar la expedición del título de doctor o doctora por las universidades participantes, de acuerdo con sus normativas vigentes y las disposiciones establecidas en el convenio.

2.– UPV/EHUko doktore tituluak honako aipamen hau jasoko du: «... Unibertsitatearekin tutore-kidetzan egindako tesia».

2.– El título de doctor o doctora expedido por la UPV/EHU incluirá la diligencia «Tesis en régimen de cotutela con la Universidad de....».

## XII. KAPITULUA

## CAPÍTULO XII

## INDUSTRIA-DOKTOREGOA

## DOCTORADO INDUSTRIAL

52. artikulua.– «Industria Doktoregoa» aipamena.

Artículo 52.– Mención «Doctorado Industrial».

1.– Tesia arlo ekonomiko eta sozialarekin lankidetzan egin duten doktoregaiak industria doktoretzat hartuko dira, betiere, haien ikerketaren helburua izan bada arlo akademikoaren eta arlo sozial nahiz ekonomikoaren arteko lankidetza sustatzea eta ezagutzaren truke eta transferentzia bultzatzea, hala eremu publikoan nola pribatuan.

1.– Se consideran doctorados industriales aquellos estudios realizados con la colaboración del tejido social y económico con el fin de fomentar la colaboración y la transferencia e intercambio de conocimiento entre el mundo académico y el mundo social y económico, ya sea este del ámbito público o privado.

2.– «Industria Doktoregoa» aipamena txertatu ahal izango da doktore-tituluaren aurrealdean, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badira:

2.– El título de doctor o doctora podrá incluir en su anverso la mención «Doctorado Industrial», siempre que concurran las siguientes condiciones:

a) Tesiaren egileak industria, merkataritza, gizarte edo kultura arloan interesekoa den ikerketa-proiektu bat aurrera eraman izana, dela enpresa batean, dela erakunde publiko edo pribatu batean, dela administrazio publiko batean. Horietatik kanpo geratzen dira unibertsitateak, ikerketarako erakunde publikoak (nazio edo erkidego mailakoak) eta unibertsitate-ospitaleak. Salbuespenez, aipamen hau egin ahal izango da aipatu erakundeetako edozeinetan (unibertsitateen kasuan izan ezik), betiere tesiaren edukia aplikatua bada neurri handi batean. Doktore tesiaren eta doktoregaiak erakunde edo enpresan egindako lanaren arteko harremana txosten zientifiko-tekniko batean formalizatu beharko da, zeina unibertsitateak onartu beharko baitu.

a) Que la tesis haya desarrollado un proyecto de investigación de interés industrial, comercial, social o cultural de una entidad, empresa pública o privada o administración pública. Quedan excluidas las universidades, los organismos públicos de investigación (nacionales o autonómicos) y los hospitales universitarios. De manera excepcional, se podrá realizar esta mención en cualquiera de estas instituciones, excepto en las universidades, siempre que el contenido de la tesis sea eminentemente aplicado. La relación directa entre la tesis doctoral y la labor desarrollada por la doctoranda o el doctorando en la entidad o empresa deberá formalizarse en una memoria científico-técnica que deberá ser aprobada por la universidad.

b) Erakunde, enpresa edo administrazio publikoak eta unibertsitateak doktorego-tesia egiteko hitzarmena sinatu izana, bertan adierazita, gutxienez, aldeek beren gain hartzen dituzten betebeharrak eta jabetza industrialaren gainean sor litezkeen eskubideak. Erakundearekin lankidetza hasi baino lehen sinatu beharko da hitzarmena.

b) Que se haya suscrito un convenio entre la entidad, empresa o administración pública y la universidad para el desarrollo académico de la tesis doctoral, que establecerá, como mínimo, las obligaciones de las partes y los derechos de propiedad industrial que se puedan generar. El convenio deberá suscribirse antes del comienzo de la colaboración con la entidad.

c) Ikerketa-proiektua garatzeko aukeratu den erakunde, enpresa edo administrazio publikoak doktoregaia kontratatu izana, tesia garatu bitartean gutxienez urtebetez. Hala, ezinbestekoa izango da ikerketaren zati handi bat erakunde, enpresa edo administrazio publiko horretan egitea.

c) Que la doctoranda o el doctorando haya estado contratada o contratado por la entidad, empresa o administración pública donde desarrolle el proyecto de investigación al menos un año durante el desarrollo de la tesis, siendo necesario que una parte sustancial de la misma se desarrolle en la entidad, empresa o administración pública.

53. artikulua.– Ikerketa-proiektuaren betekizunak.

1.– Doktoregaiaren parte-hartzea duen ikerketa-proiektuak interes industrial, komertzial, sozial edo kulturala izan beharko du, eta lotura zuzena izan beharko du doktorego-tesiarekin.

2.– Doktoregaiak txosten zientifiko-tekniko bat egingo du, eta erakunde lankideko arduradunak eta tesiaren zuzendariak berretsi beharko dute. Bertan adierazi beharko da erakunde horrek zer interes duen proiektua garatzeko.

3.– Ikerketaren eta tesiaren arteko lotura txosten zientifiko-tekniko batean formalizatu beharko da, zeina doktorego-programako batzorde akademikoak onartu beharko baitu.

54. artikulua.– Tesi industriala egitea.

1.– Unibertsitateak tesi-zuzendari bat esleituko dio doktoregaiari, eta erakunde, enpresa edo administrazio publikoak arduradun bat, zeina, hala badagokio, tesiaren zuzendari ere izan ahalko baita, arautegian ezarritakoaren arabera.

2.– Enpresak esleitutako arduraduna ezin izango da inola ere izan tesia ebaluatuko duen epai-mahaiko kide.

3.– Tesia gordailuan uzteko baimena eman ondoren, doktoregaiak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du UPV/EHUko erregistroan, 24. artikuluan adierazitako agiriekin batera:

a) «Industria Doktoregoa» aipamena eskatzeko inprimakia.

b) Lan-kontratuaren edo merkataritzako kontratuaren kopia.

c) Doktorego-programako batzorde akademikoaren akordioa, aurkeztutako txosten zientifiko-teknikoa onartzen duena.

## XIII. KAPITULUA

## KANPOKO ERAKUNDEEKIN LANKIDETZAN EGINDAKO TESIAK

55. artikulua.– Kanpoko erakundeekin lankidetzan egindako tesiak.

1.– «Kanpoko erakundeekin lankidetzan egindako tesia» aipamena txertatu ahal izango da doktore-tituluaren atzealdean, baldin eta honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Ikerketa- eta prestakuntza-plan pertsonalean programatutako prestakuntza-jarduerak aurrera eramateko asmoa izatea UPV/EHUren eta kanpoko erakundearen arteko lankidetzaren muina.

b) Unibertsitateak eta kanpoko erakundeak hitzarmena sinatzea, bertan zehaztuta zeintzuk diren lankidetzaren helburua eta baldintzak, eta nor den erakunde lankideko arduraduna.

c) UPV/EHUren eta kanpoko erakundearen arteko lankidetza gutxienez bi ikasturtekoa izatea.

2.– Lankidetza-hitzarmena XV. kapituluan xedatutakoaren arabera sinatuko da (XV. kapitulua. Lankidetza hitzarmenak kanpoko erakundeekin).

3.– Tesia erregistratzeko unean, lankidetza-hitzarmena aurkeztu beharko da aipamen-eskariarekin batera, eta dagokion aplikazio informatikoan erregistratu beharko da lankidetzan egindako lehen ikasturtea bukatu baino lehen.

## XIV. KAPITULUA

## ARGITALPEN-BILDUMAREN BIDEZKO TESIA

Artículo 53.– Requisitos del proyecto de investigación.

1.– El proyecto de investigación de interés industrial, comercial, social o cultural, en el que participe el doctorando o doctoranda deberá tener relación directa con la tesis doctoral a realizar.

2.– La persona doctoranda elaborará una memoria científico-técnica que deberá estar validada por la persona responsable de la entidad colaboradora y el director o directora de la tesis, y en ella se reflejará el interés de dicha entidad en el desarrollo del proyecto.

3.– La relación directa deberá formalizarse en la memoria científico-técnica que deberá ser aprobada por la Comisión Académica del programa de doctorado.

Artículo 54.– Desarrollo de la tesis industrial.

1.– La doctoranda o el doctorando tendrá una persona tutora de la tesis designada por la universidad y una persona responsable designada por la entidad, empresa o administración pública, que podrá ser, en su caso, directora o director de la tesis de acuerdo con lo establecido en la normativa.

2.– En ningún caso la persona responsable designada por la empresa podrá formar parte del tribunal evaluador de la tesis.

3.– Una vez autorizado el depósito de la tesis, la persona doctoranda deberá presentar en el registro de la UPV/EHU la siguiente documentación, junto con la indicada en el artículo 24:

a) Impreso de solicitud de la mención «Doctorado Industrial».

b) Copia del contrato laboral o mercantil.

c) Acuerdo de la Comisión Académica del programa de doctorado por el que se aprueba la memoria científico-técnica presentada.

## CAPÍTULO XIII

## TESIS EN COLABORACIÓN CON ENTIDADES EXTERNAS

Artículo 55.– Tesis en colaboración con entidades externas.

1.– El título de doctor o doctora podrá incluir en su reverso la mención «Tesis en colaboración con entidades externas», siempre que concurran las siguientes condiciones:

a) Que la colaboración entre UPV/EHU y la entidad externa tenga como finalidad el desarrollo de las actividades formativas programadas en el Plan de Investigación y plan de formación personalizado del doctorando o doctoranda.

b) Que se suscriba un convenio por la universidad y la entidad externa, en el que se concrete el objeto de la colaboración y las condiciones en las que se desarrollará la misma, y la persona responsable de la entidad colaboradora.

c) Que la colaboración entre UPV/EHU y la entidad externa se prolongue durante al menos dos cursos académicos.

2.– El convenio de colaboración se suscribirá de acuerdo con lo dispuesto en el Capítulo XV de Convenios de colaboración con entidades externas.

3.– El convenio de colaboración se deberá presentar junto con la solicitud de la mención en el momento del registro de la tesis, y se deberá registrar en la correspondiente aplicación informática antes de finalizar el primer curso académico de la colaboración.

## CAPÍTULO XIV

## TESIS POR COMPENDIO DE CONTRIBUCIONES

56. artikulua.– Definizioa.

1.– Doktorego-tesia argitalpen-bildumaren bidez egin eta defendatuz ere eskura daiteke doktore-titulua. Horrelako tesiek kapitulu honetan xedatutakoa bete beharko dute, baita aplikatzeko modukoak diren gainerako arautegietan xedatutakoa ere.

2.– Argitalpen-bildumaren bidezko tesia gai beraren inguruko hainbat lan zientifikok osatzen dute; horien guztien egiletza egiaztatu behar du doktoregaiak, baita argitaratu egin direla edo argitaratzeko onartu direla frogatu ere.

57. artikulua.– Betekizunak.

1.– Tesia argitalpen-bildumaren bidez aurkezteko eta haren defentsa egiteko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

Doktoregaiak hiru artikulu gutxienez izatea argitaratuta edo argitaratzeko onartuta, guztiak doktorego-programak iraun bitartean egindakoak.

Bi argitalpen izan daitezke, baldin eta doktoregaiak bi ekarpen osagarri egin baditu doktorego-programa hasi aurretiko bost urteetan.

Argitalpen gisa onartuko da ikertu den arloko artearen egoerari buruzko jatorrizko azterlan edo artikulu bat ere, baldin eta CNEAI batzordeak (Comisión Nacional Evaluadora de la Actividad Investigadora) dagokion arlo zientifikorako ezarritako baldintzak betetzen baditu.

Edonola ere, Ikerketa- eta prestakuntza-plan pertsonalean jasota daude tesiaren helburuak, eta horiekin lerrokatuta egon behar dute argitalpen guztiek.

Bildumako artikuluek honako hauetako batean argitaratuta egon beharko dute: Journal Citation Reports (SCI eta/edo SSCI) edo SCOPUS guneetan argitaratu den azken zerrendako aldizkari zientifikoetako batean, edo CNEAI batzordeak doktorego-programaren jakintza-arloan zerrendatutako datu-baseetako batean.

Gutxienez argitalpenetako batek kategoriaren lehen edo bigarren kuartilean agertu behar du.

Arte eta Giza Zientzien arloan edota Gizarte eta Lege Zientzien arloan ekarpen gisa onartuko dira liburuak edo liburu-atalak, baldin eta Edizio Akademikoan Kalitate Oneko zigilua badute edo Scholarly Publishers in Humanities and Social Sciences programan jasota badaude.

Argitalpenak egile bat baino gehiago badu, eta sinatzaileen ordena alfabetikoa ez bada, artikuluaren lehen edo bigarren sinatzailea izan behar du doktoregaiak. Tesiaren zuzendariek ziurtatuko dute doktoregaiaren ekarpena adierazgarria dela eta ikerketa-planari egokitzen zaiola.

Doktorego-programan matrikula egin ondoren argitaratu diren artikuluen kasuan, doktoregaiek UPV/EHUko afiliazioa aurkeztu beharko dute, baita, hala badagokio, zuzendariek ere.

Argitalpen-bildumaren bidez tesia osatzen duten lanak ezin izango dira modalitate bereko beste tesi batean jaso.

2.– Doktorego-programa bakoitzeko batzorde akademikoak betekizun osagarriak ezarri ahalko ditu tesia aurkezteko modalitate honetan, betiere, prozedura honekin bateragarriak direla bermatuta eta Graduondoko Batzordearen oniritzia jasota.

3.– Doktorego-programako Batzorde Akademikoak argitalpen gisa onartu ahalko du arteko sormen-proiektu bat, betiere CNEAI batzordeak dagokion arlo zientifikorako ezarritako baldintzak betetzen baditu. Horretarako, kasuan-kasuan bete beharreko baldintza eta irizpideak ezarri beharko dira, eta Graduondoko Batzordeari aurkeztu beharko zaizkio, horrek onar ditzan. Edonola ere, 1.a) atalean eskatzen diren hiru argitalpenetatik bakarrak izan ahalko ditu aipatu berri diren ezaugarriak.

58. artikulua.– Argitalpen-bildumaren bidezko tesiaren egitura.

Argitalpen-bildumaren bidez aurkeztutako doktorego-tesiak nahitaez bildu behar ditu batasun tematikoa duten hainbat lan, argitaratutakoak eta/edo argitaratzeko onartutakoak, horiek guztiak Graduondoko Batzordeak ezarritako egituraren arabera antolatuta.

59. artikulua.– Tesia izapiderako onartu dadin aurkeztu beharreko dokumentazio espezifikoa.

Artículo 56.– Definición.

1.– La tesis por compendio de contribuciones representa una opción específica para la elaboración y defensa pública de la tesis doctoral para la obtención del título de doctor o doctora, y estará sujeta a las disposiciones específicas de este capítulo, y el resto de disposiciones del reglamento que le resulten de aplicación.

2.– La tesis por compendio de contribuciones está integrada por varios trabajos científicos con una misma unidad temática, de los que el doctorando o doctoranda debe acreditar su autoría y que han sido publicados o aceptados para su publicación.

Artículo 57.– Requisitos.

1.– Para la presentación y defensa de una tesis por compendio de publicaciones será preciso que concurran las siguientes condiciones:

Que la persona doctoranda tenga publicadas o aceptadas para su publicación al menos tres contribuciones realizadas durante el periodo de permanencia del doctorando o doctoranda en el programa de doctorado.

Este número podrá ser de dos publicaciones si el doctorando o doctoranda ha realizado dos contribuciones adicionales en los cinco años previos a su ingreso en el programa de doctorado.

Una de las contribuciones podrá ser un artículo original sobre el estudio del estado del arte del área investigada que cumpla las condiciones establecidas por la CNEAI en el correspondiente campo científico.

En cualquier caso, todas las contribuciones deberán corresponder a los objetivos de la tesis reflejados en su Plan de Investigación y plan de formación personal.

Las publicaciones deberán ser artículos en revistas científicas que aparezcan en la última relación publicada por el Journal Citation Reports (SCI y/o SSCI) o SCOPUS, o en las bases de datos relacionadas por la Comisión Nacional Evaluadora de la Actividad Investigadora (CNEAI) para los campos científicos correspondientes a áreas de conocimiento del programa de doctorado.

Al menos una de ellas deberá estar en el primer o segundo cuartil de su categoría.

En las áreas de Arte y Humanidades y Ciencias Sociales y Jurídicas se permitirá que las contribuciones sean libros o capítulos de libro, con Sello de Calidad en Edición Académica o que estén incluidos en Scholarly Publishers Indicators in Humanities and Social Sciences.

En los casos de coautoría y cuando el orden de los firmantes no sea el alfabético, el doctorando o doctoranda deberá ser el o la primera o segunda firmante de la contribución. Las personas directoras de la tesis acreditarán que la aportación del doctorando o doctoranda es relevante y se ajusta a su Plan de Investigación.

En las publicaciones posteriores a la fecha de la matrícula en el programa de doctorado deberá incluirse la afiliación del doctorando o doctoranda a la UPV/EHU. En su caso, también la de los Directores o Directoras.

Los trabajos que formen parte de una tesis por compendio de publicaciones no podrán formar parte de otra tesis en la misma modalidad.

2.– La Comisión Académica de cada programa de doctorado podrá indicar requisitos adicionales para esta modalidad de presentación de tesis, estableciendo, siempre en este caso, unos requisitos compatibles con el presente procedimiento, que deberán ser aprobados por la Comisión de Posgrado.

3.– La Comisión Académica del programa de doctorado podrá aceptar como contribución de las referidas en este artículo un proyecto-creación artística que cumpla las condiciones establecidas por la CNEAI en el correspondiente campo científico. Para ello deberá establecer las condiciones y requisitos a cumplir, y presentarlo a la Comisión de Posgrado para su aprobación. En cualquier caso, tan solo una de las tres contribuciones que se exigen en el apartado 1.a) podrá tener esta naturaleza.

Artículo 58.– Estructura de la tesis por compendio de publicaciones.

La tesis doctoral presentada por compendio de publicaciones estará constituida por un conjunto de trabajos publicados y/o aceptados, justificados por su unidad temática, de acuerdo con la estructura que establezca la Comisión de Posgrado.

Artículo 59.– Documentación específica a aportar para su admisión a trámite.

Doktorego-tesia gordailuan uzteko dokumentazio orokorrarekin batera (24. artikulua), honako agiri hauek ere erantsi beharko dira:

Junto con la documentación general para el depósito de tesis doctoral indicada en el artículo 24, será necesario adjuntar la siguiente documentación:

Argitalpen-bildumaren bidezko doktorego-tesiaren defentsa egiteko eskaria, doktoregaiak sina-tutakoa, eta zuzendariaren berariazko baimena.

Impreso de solicitud de defensa de tesis doctoral por compendio de publicaciones, firmado por la persona doctoranda, con la autorización expresa de la persona directora o directoras.

Aurkeztuko diren lanen egilekide ez-doktoreen berariazko adierazpena, testuok modalitate horretako beste doktorego-tesi batean aurkeztuko ez dituztela dioena.

Renuncia expresa de los coautores o coautoras no doctores o no doctoras de las publicaciones a presentar dichos trabajos como parte de otra tesis doctoral en esta modalidad.

Tesiaren zuzendariaren txostena, aurkeztutako argitalpenak eta doktoregaiaren ikerketa-plana bat datozela adierazten duena, eta egile bat baino gehiago dagoen kasuetan ekarpena funtsezkoa dela ziurtatzen duena.

Informe de la persona directora de la tesis en el que se justifique que las publicaciones presentadas se ajustan al Plan de Investigación de la persona doctoranda y que acredite en los casos de coautoría que su aportación es sustancial.

Argitaratzeko onartutako lanen kasuan, DOI edo argitaletxeen ziurtagiriak.

Para los trabajos aceptados, DOI o certificados de las editoriales.

## XV. KAPITULUA

## CAPÍTULO XV

## LANKIDETZA-HITZARMENAK KANPOKO ERAKUNDEEKIN

## CONVENIOS DE COLABORACIÓN CON ENTIDADES EXTERNAS

60. artikulua.– Lankidetza-hitzarmenak kanpoko erakundeekin.

Artículo 60.– Tipos de convenios de colaboración con entidades externas.

1.– Arautegi honetan xedatu gisa izapidetuko dira I+G+B arloan diharduten ikastegi eta erakundeekin sinatzen diren lankidetza-hitzarmenak. Ikastegi eta erakunde horiek publiko nahiz pribatuak izan daitezke, nazio mailakoan nahiz atzerrikoak, eta horien helburuak izan behar du, besteak beste, beste erakunde batzuekin lankidetzan egindako doktorego-tesiak sustatzea eta doktorego-ikasleen mugikortasuna bultzatzea, baita horien prestakuntza osatzea ere.

1.– Se sujetarán a la tramitación dispuesta en este reglamento los convenios de colaboración con centros, instituciones y entidades con actividades de I+D+i, públicos o privados, nacionales o extranjeros que tengan por objeto promover el desarrollo de tesis doctorales en colaboración con otras entidades y la movilidad de las y los estudiantes de doctorado, así como completar su formación.

2.– Hitzarmenak sina daitezke tesiak kanpoko erakundeekin lankidetzan egiteko, edo tesiak tutorekidetzan egiteko, edo industria-doktoregoak garatzeko, edo ikerketa-arloko egonaldiak egiteko, baita aurrez adierazitako helburuak lortzeko egokiak diren gainerako alderdiak garatzeko ere. Betiere, dagokion hitzarmenean jasota egon beharko du hitzarmenaren xedeak.

2.– Los convenios podrán suscribirse para realizar tesis en colaboración con entidades externas, tesis en cotutela, desarrollar doctorados industriales, realizar estancias de investigación o cualquier otro aspecto que se considere conveniente para alcanzar los fines señalados, y que aparecerá recogido en el correspondiente convenio.

3.– Graduondoko Batzordeak hitzarmen-ereduak onartu ahal izango ditu horiek izapidetu eta sinatzeko prozesua errazteko.

3.– La Comisión de Posgrado podrá aprobar modelos de convenio para facilitar su tramitación y firma.

61. artikulua.– Hitzarmenak justifikatzeko memoria.

Artículo 61.– Memoria justificativa de los convenios.

1.– Hitzarmen bat abian jartzeko behar-beharrezkoa da memoria bat, zeinetan azalduko baita, besteak beste, zergatik den beharrezkoa hitzarmena sinatzea edo zer-nolako onura eragingo duen, zer jarduera eramango diren aurrera, zer konpromiso hartuko duten aldeek, zer azpiegitura behar den, eta zer-nolako baliabideak dauden hitzarmenaren helburuak lortzeko (giza baliabideak nahiz baliabide materialak).

1.– Todos los convenios requieren una memoria en la que se recoja, entre otros, el beneficio o la necesidad de la suscripción del convenio, las actividades a desarrollar, los compromisos de las partes, la infraestructura necesaria, así como el personal y recursos con los que se cuenta para cumplir con los objetivos del convenio.

2.– Izapidetzea abiatzeko, UPV/EHUn hitzarmena sustatzen duen organo edo egiturak osatu beharko du memoria. Ikasle jakin baten doktoregoko prestakuntzaren esparruan hitzarmen bat bultzatzen denean, berau sustatzen duen egitura arduratuko da UPV/EHUko tesiaren zuzendaritzaz.

2.– La memoria la debe completar el órgano o la estructura de la UPV/EHU que promueve el convenio para iniciar su tramitación. Siempre que un convenio se promueva en el marco de la formación doctoral de un o una estudiante concreta, la estructura promotora será el o la directora, o las y los directores, de la tesis de la UPV/EHU.

3.– Oro har, doktorego-programaren koordinatzaileak sinatuko du hitzarmena justifikatzeko memoria, aldez aurretik Doktorego Eskolaren oniritzia jasota.

3.– Con carácter general, la memoria justificativa la firmará la persona coordinadora del programa de doctorado y deberá contar con el visto bueno de la Escuela de Doctorado.

Hitzarmena Doktorego Eskolak sustatzen duenean, Doktorego Eskolako arduradunak sinatuko du memoria.

Cuando el convenio lo promueva la Escuela de Doctorado, la persona responsable de la Escuela de Doctorado firmará la memoria.

Hitzarmena errektoreordetza batek sustatzen duenean, bertako kargudun batek sinatuko du memoria.

Cuando el convenio lo promueva un vicerrectorado, la memoria la firmará un cargo del mismo.

4.– Mugikortasun-hitzarmen bat justifikatzeko memoria doktorego-programaren koordinatzaileak sinatuko du.

4.– La memoria justificativa de un convenio de movilidad la firmará la persona coordinadora del programa de doctorado.

Egonaldia kanpoan egiten duten doktoregaien kasuan, tesiaren zuzendariak osatuko du memoria, eta kanpoko doktoregaiek egonaldia UPV/EHUn egiten dutenean, ordea, UPV/EHUn egonaldiaren ardura duenak.

Cuando se trate de una estancia saliente la memoria la elaborará la persona directora de la tesis, y cuando se trate de una estancia entrante, la elaborará la persona de la UPV/EHU responsable de la estancia en la universidad.

62. artikulua.– Lankidetza-hitzarmenak.

Artículo 62.– Los convenios de colaboración.

1.– Graduondoko Batzordeak aurrez onartutako ereduak erabil daitezke hitzarmenak osatzeko, eta halakoetan, jakina, ereduotan jaso legez osatu eta izapidetu beharko dira lankidetza-hitzarmenak.

1.– Los convenios podrán o no ajustarse a los modelos previamente aprobados por la Comisión de Posgrado y ello condicionará su elaboración y tramitación.

2.– Ereduaren arabera sortzen diren hitzarmenak Doktoregо Eskolak osatuko ditu, doktorego-programaren koordinatzailearen proposamena eta hitzarmena justifikatzeko memoriaren edukia kontuan hartuta.

Ereduaren araberakoak izan gabe ere, doktorego-programaren koordinatzaileak Doktorego Eskolari proposatu dizkion hitzarmenak Doktorego Eskolak berak osatuko ditu, tesiaren zuzendariarekin eta doktorego-programako Batzorde Akademikoarekin lankidetzan.

3.– Unibertsitate parte-hartzaileak arduratuko dira tutorekidetza-hitzarmen espezifikoak diseinatzeaz eta, UPV/EHUren aldetik, Doktorego Eskola izango da arduraduna.

4.– Hitzarmenak osatzeko, beharrezkoa bada, Doktorego Eskolak laguntza eskatuko die dagokion errektoreordetzan hitzarmenekin lanean diharduten teknikariei.

63. artikulua.– Hitzarmenak izapidetzea eta sinatzea.

1.– Graduondoko Batzordeak aurrez onartutako eredu baten arabera egin denean hitzarmena, Doktorego Eskolako arduradunak sinatu ahalko du, aldez aurretik onarpenik jasotzeko beharrik gabe.

2.– Hitzarmena aurrez onartutako eredu baten araberakoa ez denean, ordea, Graduondoko Batzordeak onartu beharko du sinatu baino lehen, Doktorego Eskolak hala eskatuta, eta eraginpeko arloek aldeko txostena eman beharko dute.

Doktorego arloko eskumena duen errektoreordetzak beharrezkoak diren txostenak eskatuko dizkie hitzarmenaren gaietan eskumena duten organo edo zerbitzuei.

Hitzarmena errektoreordetza batek sustatzen duenean, ez da arloaren txostenik beharko.

3.– Erakunde lankidearen ordezkari eskudun batek eta Doktorego Eskolako Zuzendaritza Taldeko kide eskudun batek sinatuko dituzte hitzarmenak (ereduaren araberakoak izan zein ez), eta, egokitasunaren izenean komenigarri iritziz gero, errektoreak ere sinatuko ditu.

4.– Tutorekidetza-hitzarmen espezifikoak Graduondoko Batzordeak onartu beharko ditu ezinbestean, eta, ondoren, Errektoreak sinatuko ditu, edo hark bere ordez izendatutako pertsonak.

64. artikulua.– Hitzarmenak aldatzea edo luzatzea.

1.– Oro har, aukera egongo da sinatutako hitzarmenak luzatzeko, baita funtsezkoak ez diren aldaketak egiteko ere, baldin eta eraginpeko arloek aldeko txostena eman badute eta beharrezkoak diren eranskinak egin eta sinatu badira.

2.– Funtsezkoak diren aldaketak egiteko, 62. artikuluan xedatutakoa bete beharko da berriro (62. artikulua. Hitzarmenak izapidetzea eta sinatzea).

3.– Tutorekidetza-hitzarmenetan funtsezko aldaketak egiteko, ezinbestekoa izango da UPV/EHUko Graduondoko Batzordearen baimena izatea eta, ondoren, inplikatuta dauden unibertsitateetako errektoreek sinatzea.

4.– Hitzarmenaren indarraldia amaitu baino lehen egin eta sinatu beharko dira aldaketa guztiak.

## XVI. KAPITULUA

## DOKTOREGOKO SARI BEREZIAK

65. artikulua.– Doktoregoko sari bereziak.

1.– Ikasturte bakoitzean, doktoregoko sari berezia emango da aurreko ikasturtean defendatu diren eta cum laude kalifikazioa eskuratu duten tesien artean, bereziki aipagarriak diren lanen aitorpena egiteko.

Ikasturte bakoitzean ezarriko dira uneko deialdiaren baldintzak, eta horietan oinarrituta, doktoregoko sari berezi bat emango da defendatu diren hamar doktorego tesiko edo hamarretik beherako multzo bakoitzeko, honako arlo hauetan: Zientziak; Ingeniaritza eta Arkitektura; Osasun Zientziak; Gizarte eta Lege Zientziak; Arteak eta Giza Zientziak.

2.– Los convenios que se ajusten a modelo serán elaborados por la Escuela de Doctorado a propuesta de la persona coordinadora del programa de doctorado considerando el contenido de la memoria justificativa.

Los convenios que no se ajusten a modelo y que hayan sido propuestos por la persona coordinadora del programa de doctorado a la Escuela de Doctorado, serán elaborados por la Escuela de Doctorado con la colaboración de la persona directora de la tesis y la Comisión Académica del programa de doctorado.

3.– Los convenios específicos de cotutela se elaboran entre las universidades participantes, y por parte de la UPV/EHU, es la Escuela de Doctorado la encargada de su elaboración.

4.– La Escuela de Doctorado solicitará el apoyo del personal técnico de convenios del vicerrectorado competente para elaborar el convenio cuando así lo requiera.

Artículo 63.– Tramitación y firma de los convenios.

1.– Cuando el convenio se ajuste a un modelo aprobado previamente por la Comisión de Posgrado, podrá ser firmado por la persona responsable de la Escuela de Doctorado sin necesidad de aprobación previa.

2.– En el caso de que el convenio a suscribir no se ajuste al modelo aprobado, la Comisión de Posgrado deberá aprobarlo de forma previa a su firma a petición de la Escuela Doctorado, y requiere de los informes favorables de las áreas afectadas.

Desde el Vicerrectorado competente en materia de doctorado se recabarán los informes correspondientes a aquellos órganos o servicios con competencias en la materia objeto de convenio que sean precisos para su aprobación.

Cuando el convenio lo promueve un vicerrectorado no se precisará el informe de su área.

3.– Los convenios, ajustados o no a modelo, serán firmados por una persona representante de la entidad colaboradora con capacidad suficiente y por una persona miembro del Equipo de Dirección de la Escuela de Doctorado con capacidad para ello, sin perjuicio de que, por razones de oportunidad o conveniencia, hagan aconsejable la intervención de la firma del rector o rectora.

4.– Los convenios específicos de cotutela deben ser aprobados, en todo caso, por la Comisión de Posgrado y los firmará la rectora o el rector o persona en quien delegue, tras su aprobación en la Comisión de Posgrado.

Artículo 64.– Modificación y prórroga de los convenios.

1.– Con carácter general, las modificaciones no sustanciales y prórrogas de los convenios suscritos podrán efectuarse siempre que cuenten con los informes favorables de las áreas afectadas y mediante la firma de las correspondientes adendas al mismo.

2.– Las modificaciones sustanciales requerirán seguir de nuevo lo dispuesto en el artículo 62 de Tramitación y firma de convenios.

3.– En los convenios de cotutela, las modificaciones sustanciales requerirán la autorización previa de la Comisión de Posgrado de la UPV/EHU y la posterior firma de los Rectores o Rectoras de las universidades comprometidas.

4.– Cualquier modificación deberá efectuarse y suscribirse dentro del periodo de vigencia del convenio.

## CAPÍTULO XVI

## PREMIOS EXTRAORDINARIOS DE DOCTORADO

Artículo 65.– Premios Extraordinarios de doctorado.

1.– Cada curso académico se convocará la concesión de los premios extraordinarios de doctorado a aquellas tesis defendidas en el curso académico anterior que resulten especialmente meritorias y que hayan obtenido la calificación de cum laude.

La concesión se hará en las condiciones establecidas en la convocatoria, de cada curso académico, otorgando un Premio Extraordinario de doctorado por cada 10 tesis doctorales defendidas o fracción, en cada uno de los campos siguientes: Ciencias, Ingeniería y Arquitectura, Ciencias de la Salud, Ciencias Sociales y Jurídicas y Artes y Humanidades.

2.– Sari berezien deialdia Doktorego Eskolak egingo du, eta Graduondoko Batzordeari bidaliko dio, horrek onar dezan.

3.– Deialdia argitaratu egingo da, eta posta elektronikoz bidaliko zaie sariaren hautagai izan daitezkeen doktoreei, hau da, 4. atalean ezarritako baldintzak betetzen dituztenei.

4.– Sari berezia jasotzeko hautagai izateko, doktoreek eskabidea bidali beharko dute Doktorego Eskolara, alegatutako merezimenduak egiaztatzeko agiriekin batera, eta honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

Doktorego-tesiaren defentsa uneko deialdian adierazitako ikasturtean egin izana.

Doktorego-tesia ebaluatu zuen epaimahaiak halaxe erabaki izana, eta «Cum Laude» aipamena eman izana.

Doktorego-tesiaren ondorioz, aurkeztutako lanetako bat gutxienez nazioarteko ospea duen aldizkari batean argitaratu izana, edo gutxienez patente bat aurkeztu izana. Arte eta Giza Zientzien arloan edo Gizarte eta Lege Zientzien arloan, liburu edo liburu-atal bat aurkeztu ahalko da argitalpen gisa, baldin eta Edizio Akademikoan Kalitate Oneko zigilua badu edo Scholarly Publishers in Humanities and Social Sciences delakoan jasota badago.

5.– 1. atalean aipatutako arloetarako, UPV/EHUko Doktorego Eskolak deitutako epaimahaietan unibertsitateko hiru irakasle doktore egongo dira, jakintza arlo ezberdinetakoak. Ezin izango dira, inola ere, epaimahai horietako kide izan hautagaien doktorego tesietan zuzendari edo tutore izan direnak.

6.– Epaimahaiek, jasotako eskariak ebaluatzeko, beharrezkotzat jotzen duten informazio guztia eskatu ahal izango diete sariaren hautagai diren doktoreei, baita kanpoko arbitroei ere, eta Doktorego Eskolara bidaliko dituzte beren balorazioak.

7.– Doktorego Eskolak, epaimahaien balorazioak aztertu ondoren, sari bereziak nori eman proposatuko dio Graduondoko Batzordeari.

8.– UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak, Doktorego Eskolaren proposamena aztertuta, doktoregoko sari bereziak emateko erabakia hartuko du.

Sariak eman gabe gera daitezke.

## LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Arautegi hau interpretatzeko eskumena.

Doktoregoko ikasketen arloko eskumena duen errektoreordeari dagokio arautegi honen aplikazioan sor litezkeen gorabeherak interpretatu eta ebaztea.

## BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Doktore titulua berriro ematea, «Industria Doktorea» aipa-mena txertatuta.

Doktore batek Doktorego Ikasketen Gestiorako Arautegiaren arabera lortu badu UPV/EHUko doktore titulua (Gobernu Kontseiluaren 2019ko abenduaren 12an onartutakoa) eta arautegi honetan «Industria Doktorea» aipamena eskuratzeko ezarritako baldintzak betetzen baditu, titulu berri bat eskatu ahal izango du, «Industria Doktorea» aipamena duena. Egoera horretan daudenek urtebeteko epea izango dute eskaria egiteko, arautegi hau indarren jartzen den unetik zenbatzen hasita. Horretarako, titulua eskatzeko ezarritako prezioa ordaindu beharko dute.

## LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA.– Arautegia indarrean jartzen den unean ikasketak hasita dituzten doktoregaiak.

2.– La convocatoria de premios extraordinarios la elaborará la Escuela de Doctorado, y la elevará a la Comisión de Posgrado para su aprobación.

3.– La convocatoria se hará pública, y se remitirá por correo electrónico a las personas doctoras que puedan optar al premio por cumplir los requisitos establecidos en el apartado 4.

4.– Para optar al premio extraordinario, las personas doctoras deberán remitir la solicitud a la Escuela de Doctorado junto con la documentación que acredite los méritos alegados, y cumplir los siguientes requisitos:

Que la tesis doctoral haya sido defendida en el curso académico establecido en la convocatoria.

Que así lo haya decidido el tribunal que juzgó la tesis doctoral, y que haya obtenido la mención «Cum Laude».

Que, como consecuencia de la tesis doctoral defendida, haya sido aceptada al menos una publicación en una revista de prestigio internacional, o se haya presentado al menos una patente. En el área de Arte y Humanidades y Ciencias Sociales y Jurídicas, la publicación podrá ser un libro o capítulo de libro, con Sello de Calidad en Edición Académica o que esté incluido en Scholarly Publishers Indicators in Humanities and Social Sciences.

5.– Para cada uno de los campos mencionados en el apartado 1, la Escuela de Doctorado de la UPV/EHU nombrará tribunales formados por tres profesores doctores o profesoras doctoras de la universidad, pertenecientes a áreas diversas. No podrán ser miembros de tales tribunales las personas que se hayan encargado de la dirección o tutorización de las tesis doctorales candidatas.

6.– Los tribunales valorarán las solicitudes recibidas, pudiendo recabar cuanta información sea necesaria de los doctores o doctoras que optan a dicho premio, así como de árbitros externos, y elevarán a la Escuela de Doctorado sus valoraciones.

7.– La Escuela de Doctorado, a la vista de las valoraciones de los tribunales, realizará una propuesta de concesión de premios extraordinarios a la Comisión de Posgrado.

8.– La Comisión de Posgrado de la UPV/EHU, vista la propuesta efectuada por la Escuela de Doctorado, aprobará la concesión de los Premios Extraordinarios de doctorado.

Los premios podrán quedar desiertos.

## DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA.– Habilitación para interpretar este reglamento.

Se faculta a la vicerrectora o al vicerrector responsable en materia de enseñanzas de doctorado, para la interpretación y resolución de cuantas cuestiones se planteen en la aplicación de este reglamento.

## DISPOSICIÓN ADICIONAL SEGUNDA.– Reexpedición de título de doctor o doctora con mención industrial.

Aquellas personas que hubieran obtenido el título de Doctor o Doctora por la UPV/EHU de acuerdo con la Normativa de Gestión de las enseñanzas de doctorado aprobada por acuerdo de 12 de diciembre de 2019, del Consejo de Gobierno de la UPV/EHU, y que cumplieran los requisitos para la obtención de la mención industrial establecidos en el presente reglamento, podrán solicitar la expedición de un nuevo título que incluya la mención industrial, en el plazo de un año desde la entrada en vigor de este reglamento. Para ello, deberán abonar los precios correspondientes a la expedición.

## DISPOSICIÓN TRANSITORIA PRIMERA.– Doctorandas y doctorandos que están cursando sus estudios en la fecha de entrada en vigor del reglamento.

Arautegi hau indarrean jartzen den unean doktorego-ikasketak aurreko arautegien arabera hasiak dituzten doktoregaien kasuan, ikasketak hasi zituzten uneko xedapenen arabera arautuko dira doktoregoa eta tituluaren emakida. Edonola ere, 2024-2025 ikasturtetik aurrera, arautegi honetan xedatutakoaren arabera arautuko dira doktorego-tesiaren defentsa, ebaluazioa eta epaimahaia, baita sari bereziak ere.

A los doctorandos que en la fecha de entrada en vigor de este reglamento hubiesen iniciado estudios de doctorado conforme a anteriores normativas, les serán de aplicación las disposiciones reguladoras del doctorado y de la expedición del título de Doctor por las que hubieren iniciado dichos estudios. En todo caso, el régimen relativo a tribunal, defensa y evaluación de la tesis doctoral, incluidos los premios extraordinarios, previsto por el presente reglamento será aplicable a dichos estudiantes a partir del curso 2024-2025.

## BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– Ikasketak 2023-2024 ikasturtean hasi dituzten doktoregaiak.

Ikasketak 2023-2024 ikasturtean hasi dituzten doktoregaiek hirugarren zuzendari bat eskatu ahal izango dute 2024-2025 ikasturtean lanean hasteko.

## DISPOSICIÓN TRANSITORIA SEGUNDA.– Doctorandas y doctorandos que hayan iniciado estudios en el curso 2023-2024.

Las personas doctorandas que hayan iniciado sus estudios en el curso 2023-2024, podrán solicitar una tercera persona directora, para iniciar su labor en el curso 2024-2025.

## HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– «Euskarazko Doktoregoa» aipamenaren ezarpenerako behin-behineko erregimena.

1.– Tesia 2025-2026 ikasturtea bukatu aurretik gordailuan uzten duten doktoregaiek aukera izango dute 2024ko apirilaren 25eko araudia aplikatzeko, eta C2 maila egiaztatzetik salbuetsita egoteko akreditazioa eskatzeko 47/2012 Dekretuaren arabera.

2.– Behin Araudi hau indarrean sartuta, aldez aurretik matrikulatutako doktoregai guztiei eskainiko zaie tesia euskaraz egiteko asmoa adierazteko aukera eta, horrela, erregulazio berriari helduz, «Euskarazko Doktoregoa» aipamena lortzeko aukera izateko.

## DISPOSICIÓN TRANSITORIA TERCERA.– Régimen transitorio específico tras la implantación de la mención de «Doctorado en euskera».

1.– Los doctorandos y doctorandas que realicen el depósito de la tesis antes de finalizar el curso 2025-2026 podrán acogerse a el Reglamento de Gestión de las Enseñanzas de Doctorado publicado en el BOPV de 7 de junio de 2024, y solicitar la exención de la acreditación del nivel C2 según el Decreto 47/2012.

2.– Tras la entrada en vigor del presente Reglamento se ofrecerá a todos los doctorandos y doctorandas matriculados anteriormente la posibilidad de declarar su intención de realizar la tesis en euskera y, así, acogiéndose a la nueva regulación poder optar a la mención de «Doctorado en Euskera».

## XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA.– Arautegia indargabetzea.

Indarrik gabe geratzen da 2024ko ekainaren 7an EHAAn argitaratutako Doktorego Ikasketen Gestiorako Arautegia, arautegi honetako xedapen iragankorretan aurreikusitakoari kalterik egin gabe.

## DISPOSICIÓN DEROGATORIA ÚNICA.– Derogación normativa.

Queda derogada el Reglamento de Gestión de las Enseñanzas de Doctorado publicado en el BOPV de 7 de junio de 2024, sin perjuicio de lo previsto en las disposiciones transitorias del presente Reglamento.

## AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Arau osagarriak ezartzeko eskumena.

Graduondoko Batzordeari dagokio arautegi hau garatuko duten arau osagarriak ezartzea.

## DISPOSICIÓN FINAL PRIMERA.– Habilitación para dictar normas complementarias.

Se faculta a la Comisión de Posgrado, para que dicte normas complementarias que desarrollen este reglamento.

## AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Gestiorako prozedurak.

UPV/EHUko Graduondoko Batzordeak ezarriko ditu arautegi honen prozedura gehigarriak doktorego-ikasketen gestiorako, eta unibertsitateko webgunean argitaratuko ditu.

## DISPOSICIÓN FINAL SEGUNDA.– Procedimientos para la gestión.

La Comisión de Posgrado de la UPV/EHU, establecerá los procedimientos adicionales al presente reglamento para la gestión de las enseñanzas de doctorado, y serán publicados en la página web de la universidad.

## AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.– Indarrean jartzea.

Arautegi hau indarrean sartuko da EHAAn argitaratu den egunaren biharamunean.

## DISPOSICIÓN FINAL TERCERA.– Entrada en vigor.

Este reglamento entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOPV.

Sitio web desarrollado y gestionado por el Servicio Web del Gobierno Vasco